

2020ko DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA
(COVID-19 krisi sanitarioa dela-eta egokitua)
GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak bere 8.1 artikuluan ezartzen duenez, dirulaguntzak ezartzea proposatzen duten administrazio publikoetako organoek, edo beste erakunde batzuek, dirulaguntzen plan estrategiko batean zehaztu beharko dituzte planaren aplikazioarekin lortu nahi diren helburu eta ondorioak, helburu horiek lortzeko beharrezko epeak aurreikusi daitezkeen kostuak eta dagozkien finantzaketa-iturriak, aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzearen mende utzita edozein kasutan ere. Ezartzen du, gainera, lortu nahi diren helburuak merkatua eraginpean hartzen dutenean, argi eta garbi identifikatutako akatsak zuzentzera orientatu behar direla eta horren ondorioek distorsiorik al baitxikiena eragin behar dutela. Lege honek aipatzen dituen dirulaguntzen kudeaketa printzipio hauen arabera kudeatuko da:

- a) Publizitatea, gardentasuna, konkurrentzia, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza.
- b) Administrazio emaileak finkatutako helburuak betetzeko eraginkortasuna.
- c) Baliabide publikoak erabakitze eta erabiltzeko eraginkortasuna.

Horri begira, Euskal Autonomia Erkidegoaren administrazioaren esparruan, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 01/2015 Zirkularrak –Dirulaguntzen Plan Estrategikoa egiteari buruzkoak– jarraibide batzuk eman zituen plan horiek nahitaez egiteari begira.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuak bere 4. artikuluan esleitzen dio Lehendakariari garapenerako lankidetzaren arloa. Ildo horretan, Lehendakariaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 70/2017 Dekretuaren 3. artikuluko 2. zenbakiak Lehendakariari atxikitzen dio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia, Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren bidez, idazkaritza hori sortzen duen ekainaren 19ko 5/2008 Legean ezarritakoari jarraikiz, eta erakunde horri dagokio garapenerako lankidetzaren arloa.

2020ko Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aztertzen dugu hemen, eta adieraztekoa da, lehenik mota bereko gainerako planak bezala, izaera programatikoa duela, eta, hori horrela, bere edukia ez du ez eskubiderik, ez betebeharririk sortzen, eta planaren dirulaguntza lineak praktikan jartzearen mende dago planaren beraren eraginkortasuna, ekitaldi bakoitzeko aurrekontu-aukerak kontuan izanda, beste zenbait alderdiren artean.

Kontuan izan behar da Gobernu Kontseiluaren 2018ko uztailaren 24ko Erabaki bidez onartu zela Garapenerako Lankidetzaren Gida Plana, zeinak 2018-2021 aldirako zehazten duen Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren jardun-arloari dagokion plangintza.

2020ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegorako Aurrekontu Nagusiak onartzen dituen abenduaren 27ko 13/2019 Legeak dirulaguntza-teknikaren bidez zenbait ekimeni ekiteko baliabideak izatea biltzen du. Baliabide horiekin landuko dugu 2020ko ekitaldirako Dirulaguntzen Plana, zeinak dirulaguntza linea guztiak abiaraztea ahalbidetzen duen.

Horrela, adieraztekoa da 2020. urterako bildutako laguntza eta dirulaguntzek honako ezaugarri hauei erantzuten dietela:

- Lehia-konkurrentziako prozedura bidez eman beharreko dirulaguntzak.
- Zuzeneko emakida bitarteko prozeduraren bidez eman beharreko dirulaguntzak (13/2019 Legean nominatiboki aurreikusitako dirulaguntzak, eta interes publiko, sozial, ekonomiko, humanitario edo bestelakoak izanik deialdi publikoa egitea zailtzen duten arrazoiak daudela egiaztatzen diren dirulaguntzak).

Sariak eta bekak.

2020ko Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa sustapen-jardueraren plangintza-tresna gisa ageri da, dirulaguntzen bidez.

Dena den, egungo aurrekontu-aukeren mende egongo da dirulaguntzak ematea.

2020rako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Dirulaguntza Plana Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektoreak onartu zuen 2020ko otsailaren 11n, baina **COVID-19aren pandemiaren** ondoriozko krisi sanitario eta ekonomikoa dela-eta, egokitzat jo da hasiera batean onartutako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa birplanteatzea, plana krisi horren ondorioz sortutako premia berrietara egokituz.

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAREN 2020rako DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA
(2018-2021 aldirako Garapenerako Lankidetzaren IV. Gida Planari dagokionez, plan hori garatuz eta plan horren osagarri)
20120ko DIRULAGUNTZEN EKINTZAK**

FINANTZAKETA-ITURRIA: Euskal Autonomia Erkidegoaren 2020ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak, abenduaren 27ko 13/20019 Legeak onartuak, 248. EHAA, 2020ko abenduaren 31koa).
GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAREN USTIAPEN AURREKONTUA

2020ko GARAPENERAKO LANKIDETZARAKO LAGUNTZAK

(Ustiapenari eta kapitaleko dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak)

6521 eta 6531 gastu-kontuak: **2020: 13.728.704,29 €** (Sortutako etorkizuneko konpromisoak: **2021: 13.508.100,00 €; 2022: 13.200.000 €**) **Guztira: 40.436.804,29 €**

Laguntza-lineak: 2020rako aurreikuspena (Aurreko ekitaldietan hartutako konpromisoak alde batera utzita)

1.1 Lankidetzaren tresnen deialdia. 5

2.1.1 Ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzen deialdia, ekintza humanitarioko proiektuen modalitatea. 1

2.1.1.1 Emandako ekintza humanitarioko proiektuen laguntzen kopurua. 25

2.1.2 Garapenerako lankidetzaren proiektuetarako laguntzen deialdia. 1

2.1.2.1 Garapenerako lankidetzaren proiektuetarako emandako laguntzen deialdia. (K1: 51; K2: 4; K3: 18): 73

2.1.3 Garapenerako lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko eta prestatzeko bekak emateko deialdia. 1

2.1.3.1 Emandako beken kopurua. 5

2.1.4 Garapenerako Lankidetzaren Ignacio Ellacuría Sariaren deialdia. 1

2.1.4.1 Saritutako erakunde eta/edo pertsona fisikoen kopurua. 1

2.1.5 Erakundeetan genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuak sustatzeko lankidetzaren erakundeentzako laguntzen deialdia. 1

2.1.5.1. Genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuak sustatzeko emandako laguntzen kopurua. 6

1.2 Zuzenean emateko prozedurak. 17

1.2.1. Interes publiko, sozial, ekonomiko, humanitario edo bestelakoak izanik deialdi publikoa egitea zailtzen dela egiaztatzen den dirulaguntzen kopurua. 11

1.2.2. EAEko Aurrekontu Orokorrei buruzko 13/2019 Legea nominatiboki aurreikusitako dirulaguntzen kopurua. 5

1.2.3 Uraren Erakunde arteko Programa 2018-2020: 1

2018-2021 ALDIRAKO GARAPENERAKO LANKIDETZAREN IV. GIDA PLANA

20120an BANA DAITEZKEEN FUNTSAK: 40.436.804,29 €

TRESNAK: bakoitzerako urtean bana daitezkeen funtsen ehunekoa eta aurreikus daitezkeen kostuak

<p>1. HERRIALDE KIDEEKIKO LANKIDETZA:</p>	<p>GARAPENERAKO LANKIDETZA:</p> <p>Garapenerako lankidetzako proiektuak (% 68,75)</p> <ul style="list-style-type: none"> - Garapen-lankidetzarako irabazi-asmorik gabeko erakundeek egin beharreko garapen-lankidetzarako proiektuetarako laguntzak. (PRO/K1) - Aurreko idatz-zatian barne hartuta ez dauden irabazi-asmorik gabeko erakundeek egin beharreko produkzio-garapeneko eta prestakuntza eta laguntza teknikoko proiektuetarako laguntzak. (PRO/K2) <p>EKINTZA HUMANITARIOA:</p> <p>Ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak, ekintza humanitarioko proiektuen modalitatea (PRE): % 12,36</p>
<p>2. GIZARTE-ERALDAKETARAKO EKINTZAK/PROZESUAK</p>	<p>ERAGIN POLITIKOA, BERRIKUNTZA ETA SORMEN METODOLOGIKOA; IKERKETA; PRESTAKUNTZA; KOMUNIKAZIOA, TRUKEA ETA IKASKUNTZA KOLEKTIBOA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Irabazi-asmorik gabeko erakundeek egin beharreko garapen-hezkuntzako proiektuetarako laguntzak. (PRO/K3): (% 10,39) <p>IGNACIO ELLACURÍA SARIA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Garapenerako Lankidetzaren <i>Ignacio Ellacuría</i> Saria (SAR): % 0,04
<p>3. AGENTEAK SENDOTZEA</p>	<p>GENERO-EKITATEAREN ALDEKO ANTOLAMENDU-ALDAKETA</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lankidetzarako erakundeei bideratutako laguntzak genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuak sustatzeko (GBA):. % 0,46 <p>GAZTEENTZAKO ESPEZIALIZAZIO-BEKAK</p>

	<ul style="list-style-type: none"> - Garapenerako lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko eta prestatzeko bekak (BEK). % 0,25
4. ZUZENEKO LANKIDETZA	<p>ZUZENEAN EMATEKO PROZEDURAK: % 7,54</p> <ul style="list-style-type: none"> - Alde biko eta alde anitzeko lankidetzaren antolatzearen Zuzeneko Dirulaguntzak (ZUZ): % 5,96 - Dirulaguntza Nominatiboak: % 1,79

LANKIDETZA-TRESNA BAKOITZERAKO ZUZKIDURA EKONOMIKOA		
DEIALDIA / TRESNA	Esleitutako funtsak €-tan	Ehunekoak %
Finantzaketa-linea iraunkorreko Ekintza Humanitarioko esku-hartzeak (PRE) 2020	5.000.000,00	% 12,36
Garapenerako lankidetzaren eta hezkuntzarako proiektuak (PRO/K1, PRO/K2 eta PRO/K3) 2020	32.000.000,00	% 79,14
Garapenerako lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko eta prestatzeko bekak 2020	100.000,00	% 0,25
Lankidetzarako erakundeei bideratutako laguntzak genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuak sustatzeko 2020	187.000,00	% 0,46
Zuzeneko dirulaguntzak (ZUZ) 2020	2.409.304,29	% 5,96
Laguntza Nominatiboak 2020	725.000,00	% 1,79
Ignacio Ellacuría Saria (SAR) 2020	15.500,00	% 0,04
GUZTIRA	40.436.804,29	% 100
URA EUSKAL AGENTZIAREN AURREIKUSITAKO EKARPENA		